


Ene Jesus: Irudiz irakurria

PACK 50 urte. Nobela + Joxean Muñozen irudi bidezko hurbilpena



Talde lana

Ilustratzailea: Joxean Muñoz

Bilduma: Narratiba, 164

Formatua: 150 x 220 mm

Orrialdeak: 182

Koadernaketa: Paper-azala

Argitalpen data: 2026-05-04

ISBN-a: 978-84-1093-115-2

Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa

23,50 €



ISBN: 978-84-1093-115-2

9 788410 931152

Nobelarekin batera, pack moduan, eskaintzen dugun lana ez da ilustrazio bilduma arrunta: Ramon Saizarbitoriaren *Ene Jesus* nobela oinarri hartuta, testua bera irudi bihurtzen duen Joxean Muñozen proposamen artistikoa da. Paper milimetratuaren eta testuaren arteko talka baliatuz, ordena narratiboa apurtu eta kode geometriko errepikakor baten bidez diskurtsoa zatitu, estali eta berreraikitzen da. Irudiek ez dute kontakizuna azaltzen, baizik eta nobelaren haustura, ezintasuna eta tentsio emozionala azaleratzen dituzte. Hasieran modu esperimentalean sortua, lan hau edizio pribatu batetik argitalpen zabalago batera igaro da, nobelari omenaldi bisual eta kontzeptual gisa.

Egileak

Ramon Saizarbitoria (Donostia, 1944). Soziologoa eta idazlea. 1967an LUR argitaletxea sortu zuen beste idazle batzuekin batera, eta 70eko urteetan *Oh! Euzkadi* Literatur aldizkaria. Euskal narratzailerik ezagunenetako eta baloratuenetako bat da bai Euskal Herri barruan bai kanpoan ere. Hauek dira bere nobelen izenburuak: *Egunero hasten delako* (1969), *Ehun metro* (1976), *Ene Jesus* (1976), *Hamaika pauso* (1995), *Bihotz bi* (1996), *Gorde nazazu lurpean* (2000; jatorriz liburu honetakoak izanik, argitalpen bakartua izan zuten barruko kontakizun hauek: *Gudari zaharrena gerra galdua*, *Rossetti-ren obsesioa* eta *Bi bihotz, hilobi bat*), *Martutene* (2012) eta *Lili eta biok* (2015). Bioleta sailean argitaratuak ditu gazteentzako bi kontakizun: *Kandinskyren tradizioa* (2003) eta *Miren eta erromantizismoa* (1919).

Aberriaren alde (eta kontra) saio aipagarria 1999koa da.

Hainbat aldiz irabazi du Kritika saria eta Euskadi Literatura saria bere eleberriekin.

Joxean Muñoz Otaegi (Donostia 1957). Arte garaikidearen historia eta zinemarako gidoigintza ikasi zituen. Literaturan aritu da, diseinu grafikoan baita ere, eta, batez ere, gidoigintzan, telebistarako, zinemarako eta komikietarako. Erakusketak sortzea izan du urte askotan lanbide nagusia, baita kultur proiektuak sortzea eta kudeatzea ere. Kultura politikan dihardu azken urteotan, Eusko Jaurlaritzan.

Hainbat poema liburu argitaratu ditu *Parentesiak (etab.)* (1984), *Begien Bizkar* eta beste bi bilduma, auto editatuak. Hainbat artikulu eta zutabe idatzi ditu, *Oh! Euzkadi* aldizkarian, *Euskaldunon Egunkarian*, *Berrian*, *Jakinen*, *Diario Vascon*, eta hainbat aldizkari espezializatutan. Espainiako Goya Saria irabazi zuen 2000. urtean *Karramarro Uhartea* animazio filmarengatik, Inazio Mujika Iraolarekin batera idatzia eta Txabi Basterretxearekin batera zuzendua. Txabi Basterretxearekin egin zuen, baita ere, *Tortolika eta Tronbon*, animazioko film laburra, Kimuak programarako hautatua izan zena (1998). Zinemagintzatik erakusketagintzara egin zuten biek jauzi. Erakusketak tematikoak, batetik, *Komikiak 100*, *EkoConsum*, *Atarian*, *Cristina-Enea* edo *Badu Bada* bezalakoak, sortzaile baten lanaren ingurukoak besteak, hala nola *Antton Olariaga*, *Joxe Mari Zabala*, *Ivan Zulueta*, *Gabriel Celaya*, *Isabel Azkarate*, *John Zabalo* "Txiki", *Nestor Basterretxea*...

Komikietarako gidoiak idazten *GABAIren Vascos con Historia* sailean hasi zen, (J.A. Lopetegi marrazkilari zela, R. Castellanak sortutako pertsonaiekin). *Txirri*, *Mirri* eta *Txiribito* pailazoan hiru abentura idatzi zituen gero (J.A. Lopetegiren marrazkiez, hauek ere), "Barnetegian Tiroka" izeneko komikia (J.L. Nazabalen marrazkiez), *HABE* aldizkarirako, eta Iratiren zikloa –bigarren aletik aurrera–, Juan Luis Landa marrazkilariak sortutako unibertsoaren baitan: *Boldroren* domina, Iratiren zigorra eta Saiak.

Tabakalera, Kultura Garaikiderako Nazioarteko Zentroaren zuzendaria nagusia izan zen, 2006tik 2010ra. Kultura Sailburuordea izan da Eusko Jaurlaritzan, 2013tik 2020ra. Kultura Sailordetzako aholkularia da, egun.